

Kultura

'Friederike' argazki liburua aurkeztuko du Jesus Mari Arruabarrenak, Begira Photoren lehenengo egunean. >14



Brigada feministak prest jaietan

Eraso sexisten prebentzioa eta salaketa egiteko asmoz, brigada feministak osatu dituzte Durangoko Txosnagunean. Jai-giro osasuntsua eta emakumeen jabekuntza dira euren helburuak. > 4



Frades, odisea baten kronika

Gurutze Fradesek munduko Ironman txapelketan parte hartu zuen, joan zen asteburuan, Konan (Hawaii). Bere ibilbideko sasoirik onenean heldu arren, ezin izan zuen bere onena eman. 33. tokiak ez du islatzen bere benetako gaitasuna. Sabeleko arazoak zirela medio, gorputzak ez zion erantzun probako zatirik handienean, eta ikaragarri sufritu zuen. Baina, "sekula ez naiz proba batetik erretiratu, eta Konakoa ez zen salbuespena izango", dio iurretarrak. Orain, datozen asteetan, etorkizunera begira zer bide hartu erabakitzea egokitzen zaio. > 18

Iurreta > 3

San Migeletan eraso sexista jasan zutela salatu dute bi neskak

Durango > 6

La Cuadri del Hospik txupinazo txikia jaurtiko du, domekan

Otxandio > 8

Italiako lurrikaran kaltetuei laguntzeko bazkaria egingo dute

Berriz > 2

Bertako behi-esnea eskualdeko dendetan salduko dute

Azkonizaga

Ortuzar, 1 · Izurtza (Bizkaia) · Tel./Faxa: 946 810 652
azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com

**UNAI
GARAY**

ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

Herririk herri

BERRIZ Maialen Zuazubiskar Abeltzaintzatik bizi den familia da Biritxinagatarrena. Gurasoak behi-esnea saltzen hasi, eta eurei bizi osoa laguntzen egin ostean, 2009. urtean Aiarbi ganadutegia sortzea erabaki zuten Aitor eta Arkaitz Biritxinaga anaiek.

Ordutik geroztik, beraien 450 abelburuengandik lortutako esnea, eskusiboki, gaztandegi jakin batera bideratu izan dute, gazta freskoa egin dezaten.

Ustiategi handiari beraien produktua saltzeaz gain, esnea erostera etxera bertara ere etorzen zaiela jendea aitortu du Aitor Biritxinagak. “Beti izan ditugu behi-esnetan etxera etorri diren bezeroak, eta hemen aurrera ere izango ditugu”, baieztatu du.

Berrikuntzak

Orain, berriz, berrikuntzez jositako biritxinagatarrak. Hemendik aurrera, gaztandegiari behi-esnea saltzeaz gain, Durangaldeko hainbat denda txikiri, harategiri eta jatetxeri Berrizko Errotazar baserrian ekoiztutako

Bertako behi-esnea eskualdeko denda, harategi eta jatetxeetan

Biritxinagatarrek Durangalde osoan salduko dute bertakoa den produktua



Aitor Biritxinaga abeltzaina.

ko esnea salduko diete.

“Gure inguruan saltzen eta kontsumitzen den esnea nola-koa den ikusita, zerbait egitea beharrezkoa zela iruditu zitzaigun” aitortu du Biritxinagak.

Beraz, beraien ganadutegiko behi-esnea Durangaldeko herri-terrei saltzea aukera ona izan zitekeela iruditu zitzaien.

“Kalitatezko eta bertako esnea daukagu, ehuneko ehunean

naturala dena. Beraz, zergatik ez eskaini jendeari aukera hau, gure behi-esnea”, bukatu du abeltzainak.

Berrizko Errotazar baserrian prozesu guztia pasatuko

duen esnea poltsa berezi batzuetan salduko dute, eta ez da egosi beharko. Gainera, biritxinagatarrek aitortu dutenez, zazpi eguneko iraungipen-data izango du.

Harrera ona

2013an Euskal Herriko Ustiategi-rik onenaren saria jaso zuten anaiek aitortu dutenez, jendeak “harrera bikaina” egin dio be-

Errotazar baserrian ekoiztutako behi-esnea ez da egosi beharko edan aurretik

raien produktuari. Oraindik plazaratu ez duten arren, denda txiki, harategi eta, batez ere, jatetxeetan beraien esnari “harrera izugarria” egin diotela aitortu dute.

Gurasoen ohituretara bueltatuz, —“hobekuntza dezente-gaz, hori bai”— Biritxinagatar anaiek behi-esnea plazaratuko dute berriro, datorren astean.

Mañariko hainbat puntu ilun argiztatuko ditu udalak

Farola berriak jarriko ditu udalak hainbat lekutan

MAÑARIA M.O.

Herriko argiteria aldatzeko lanean hasi da udala, 57.500 euroko aurrekontuagaz. Hainbat helburu ditu atzean egitasmoak, eta horietako bat, herriko zenbait puntu ilun argiztatzea. Beraz, segurtasuna handitzeko asmoa dute aldaketa honek. Adibidez, Hontza museoa eta lehengo estankorearen arteko kantoiartea edota eliza parek dira puntu beltzetako batzuk.

Bestalde, udalak azaldu du BI-623 errepedearen argiztape-

na ez dela egokia, eta eremu horretan farola berriak ipiniko dituzte. Horrela, Kirikiño kalean eta plazan bertan igarriko da argitasun handiagoa.

LED teknologia

Ipiniko diren farola berriak kontsumo baxuko LED teknologia-koak izango dira, eta telegestio sistemagaz funtzionatuko dute. Horri eskerrak, elektrizitatearen gastu ekonomikoa beherakada egotea lortu gura du udalak.

Izurtzako eta Mañariko istorioak eta historia ezagutzeko aukera, hilaren 22ko ibilaldian

Euskaraz eta gaztelaniaz ibilbide bana daude eta Izurtzan hasiko dira

IZURTZA J.D.

Gerediaga Elkarteak antolatutako ondare jardunaldietan, Izurtzako eta Mañariko historia

eta istorioak ezagutzeko aukera egongo da urriaren 22an, herri- biak lotuko dituen ibilaldiaren bidez. Saio bi antolatuko dituz-



Izurtzako udaltxe paretik irtengo dira ibilaldiak.

te: 11:00etatik 13:00etara euskaraz, eta 16:00etatik 19:00etara gaztelaniaz. Izurtzako udaltxe parek da topalekua. Idazle bi nabarmenduko dituzte: Nikolas Alzola ‘Bitaño’ idazle, margolari eta euskaltzain urgazle izurtzarra eta Evaristo Buskintza ‘Kirikiño’ idazle eta kazetari mañariarra. Urkiolako bidearen proiektua egin zuen Francisco Etxanoberi buruz ere jardungo dute eta Bizkaiko barroko estiloko organorik handiena entzuteko aukera egongo da.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko urriaren 14a
14. urtea - 649. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Eraso sexistarik onartzen ez dutela aldarrikatu dute Iurretan

Sanmigeletan eraso sexista jasan zuten bi neskek salaketa ipini dute



Elkarretaratze jendetsua egin zuten, astelehenean, Iurretan, sanmigeletan izandako eraso sexista salatzeko.

IURRETA Markel Onaindia
Iurretako biribilgune ondoan, Durangorantza doan espaloia bete zuten 100dik gora lagunek astelehenean, herrian izan den azken eraso sexistarengatik protesta egiteko. Iurretako Udalak, Anderebide elkarteak eta baita Jai Batzordeak ere elkarretaratze bateratua egin zuten, eraso sexista sanmigeletan izan zen-eta. Bukaeran, jai batzordeko kide eta zinegotzi Liher Aiartzaguenak hartu zuen hitza, azalpenak emateko eta bertaratu ziren herritar guztiei eskerrak emateko: “Ea azkena den”, esan zuen.

Ordu laurdeneko elkarretaratze isila izan zen, eta herritar ugari batu ziren; Iñaki Totorikaguena alkatea ere bai. Eraso jasan zuten emakumeei babesa agertu zieten bertan, eta baliabideak euren esku jarri ere bai. Halaber, eraso honen aurrean, eta emakumeen aurka gertatzen diren indarkeria mota guztien aurrean ere, gaitzespena agertu zuten.

Salaketa ipini dute
Joan zen urriaren 2an, zapa-tutik domekarako goizaldean, gertatu zen eraso sexista hori, Aita San Migel plazaren inguruan. Eraso jasadako bi neskek salaketa ipini zuten, eta Ertzaintza gertatutakoa iker-tzen dabil.

Goizaldean gertatu zen eraso, 05:30 pasatxoan. Neska biak txiza egitera joan ziren; ezustean, gizonezko bat gainera bota eta musuka hasi zitzairen. Erasotzailea gainetik kentzea lortu zuten bi neskek, eta beste leku batera joan ziren txiza egitera. Baina, han ere agertu zen erasotzailea, eta laguntza eskatu behar izan zuten. Beraien lagunak hurreratu zirenean, SOS-Deiakera deitu zuten laguntza eskatzeko eta erasotzailea harrapatzeko asmoz.

Ez zuten harrapatu. Izan ere, erasotzaileak ihes egin zuen Durangorako norabidea hartuta, eta Ertzaintza etorri zen arren, bere arrastoa galdua zuten ordurako.

Nagusien Bidelagun izateko izena ematea zabaltu dute

Egitasmoan parte hartzeko, izena eman daiteke

IURRETA Aitziber Basauri
Zabaltu dute jada izena emateko epea herriko pertsona nagusiei “gertutasuna eta laguntza eman” gura dien Nagusien Bidelagun programan parte hartzeko. Bizkaiko Gurutze Gorriagaz abiatu du ekimena udalak, eta mendekotasun edo ezgaitasun egoeran dauden pertsona nagusiei, familia-lotura gutxi dutenei edota bakardade sentipena dutenei dago zuzenduta.

18 urtetik gora dituen edozein pertsona izan daiteke bo-

luntario, “bere denboraren zati bat pertsona nagusiei emateko prest dagoena”, azaldu dute udal ordezkariak. Laguntza erregularra —astean ordu bi—edo laguntza puntuala —medikuenera joateko edo bestelako gestioak egiteko—eskainiko da. Telefono bidezko jarraipena ere egingo dute.

Ohiko inguruan gelditzeko autonomia pertsonala errazteko eskaini gura zaie laguntza, batez ere pertsona hauei. Horrela azaldu dute udal ordezkariak.

Alokairurako laguntzen poltsa gehitu du udalak

Gazteei bideratuta daude, eta 9.000 euro lotu dituzte

IURRETA A. B.
Gazteek etxebizitza alokatzeko diru-laguntzen eskabidea egiteko epea zabaltu du udalak. Horretarako, 9.000 euro gorde dituzte aurten, iaz baino 3.000 euro gehiago. Iurretan errol-datutako 18 eta 35 urte arteko gazteek urriaren 31ra arte egin dezakete eskaria. “Gazteei euren emantzipazio prozesuan eta helduen mundura sartzeko unean babesa eman” gura zaie, eta herrian etxebizitza eskuratzeko aukera eskaini ere bai.

Diru-laguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren hileko alokairuaren prezioaren %50 izango da. Halaber, gehienez ere, hilabete bakoitzeko, 250 euroko laguntza emango zaio onartutako eskaera bakoitzari. Udaletxean zein Bidebarrieta 5eko bulegoan daude deialdirako oinarriak. Baita udalaren webgunean ere: (www.iurreta.eus). Aurretik aipatu bezala, aurten, 9.000 euro aurreikusitako diru-laguntza eskari onartu zituzten.



DOAKO IKASTAROAK

2016-2017 IKASTURTEKO IKASTAROEN ESKAINTZA

INFORMAZIOA eta IZENA EMATEA

www.ibaizabalikastola.eus · 94 621 58 77 · ikastaroak@ibaizabalikastola.eus
IZENA EMATEKO EPEA: IKASTAROA HASI BAINO ASTE BAT LEHENAGORA ARTE

IKASTAROAK	ORDUAK	HASIERA DATA	
PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIA			
Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren sustapena MF1026_3	50	2016ko urriak 17	HOBETUZ
Ur instalazioetako sorospena AFDP0109	290	2016ko azaroak 2	LANBIDE
“Atención Sociosanitaria a personas dependientes en instituciones” SSCS0208	370	2016ko azaroak 7	LANBIDE
Lan orientazioa eta lanbide Heziketako enpleguaren kalitatea sustatzea MF1446_3	30	2016ko abenduak 19	LANBIDE
Gatazken prebentzioa MF1039_3	70	2016ko abenduak 22	LANBIDE
Enplegurako prestakuntza-ekintzen programazio teknika MF1442_3	60	2017ko urtarrilak 30	HOBETUZ
Ur eremu Naturaleko sorospena AFDP0209	180	2017ko otsailak 20	LANBIDE

ESKAINTZA IREKIA

Sare Sozialak enpresaren komunikaziorako tresna	20	2016ko azaroak 7	HOBETUZ
Hezkuntzarako google tresnak eta web aplikazioak	20	2017ko urtarrilak 11	HOBETUZ
Psikomotrizitatea nagusientzat	20	2017ko urtarrilak 12	HOBETUZ



Ibaizabal Ikastola Intxaurrondo kalea, 54. 48200 DURANGO



Maite Barreña, Iraia Bejarano, Ane Amantegi eta Anes Baños izango dira brigada feministetako kide batzuk.

“Erasoen prebentzioa eta salaketa egingo dugu, jai-giro osasuntsu bat edukitzeko”

Eraso sexisten aurkako brigada feministak martxan daude Txosnagunean, hainbat boluntariogaz

DURANGO Markel Onaindia San Fausto jaietan, trankil joango dira mutilak etxera, inork bortxatuko dituen beldurrik barik. Begirada lizunik jaso barik egingo dute txiza, eta eskuluzeen kezkarik ez dute edukiko parrandan daudela. Neskek sarri sufritu dituzten egoerak dira horiek, zoritxarrez. Erasos sexisten aurka egiteko, brigada

feministak antolatu dituzte txosna batzordeak eta Bilgune Feministak. Badago lanik; azken hile eta erdian sei eraso salatu dituzte Durangon –horietatik batzuk parrandan edo jaietatik bueltan–, eta Iurretako jaietan ere eraso bat salatu dute neska bik.

Brigada feministak txanden bidez antolatu dituzte. Iraia Bejarano da boluntarioetako bat,

eguztzen gauez egin zuen txanda. Momentuz, lasai: “Bi txandatan egin genuen zaintza, eta ez zen ezer txarrik gertatu”. Bere partaidetzaz galdetuta, hurrengo dio: “Egoera latza iruditzen zait. Azken asteetako erasoek erantzuna eduki behar dute, eta denok ipini behar dugu zerbait”.

Datozen egunetan tokatu zaie txanda Anes Baños, Ane

Amantegi eta Maite Barreñari. Bañosek hilaren 21ean dauka. “Uda honetan zelako eraso kopurua eduki dugun ikusita, emakumeok erantzun zuzena eman behar dugula uste dut”. Erasok ezin direla onartu esan du, gaur egun garrantzia kentzen zaien erasoak ere ez: “Jaietan, jende batek uste du guztia onartzen dela. Zerbait lekuz kanpo ikusten dugun momentuan, erantzuteko legimititatea daukagu”. Zapatu honetan ibiliko da lanean Amantegi. Emakumeen ekintza kolektiboari balioa eman dio, eta jai osasuntsuak lortzeko nahia agertu du: “Ukipenak, berba zatarrak... Askotan erasotzat hartzen ez diren horien prebentzioa eta salaketa egingo dugu, benetan jai-giro osasuntsu bat edukitzeko”.

Jaietan, izaera feminista

Adinez nagusiago direnek ere hartu dute brigadan parte hartzeko konpromisoa, Maite Barreñak lez. “Kolektiboki lan egiteko tresna bat da feminismoa. Jaietan ere tokatzen zaigu izaera feminista harrotasunez

plazaratzea, lanean edo etxean bezala”. Beste hiru lagunegaz eta ezagutzen ez dituen beste bigaz osatuko du brigada, bihar: “Brigada feministetan egongo gara eta, bide batez, lagunak egingo ditugu, gainera; plan perfektua da, beraz”.

60 boluntarioen beharra

Bost laguneko taldeak izango dira brigadak; guztira, 60 bat boluntario beharko dituzte jaietan. Laguntzarako telefono bat edukiko dute, eta karteletan agertuko da zenbaki hori. “Deia jasoz gero, brigadakoak joango dira, eta gero, txosnetako protokoloa jarriko da martxan”, azaldu du sustatzaileetako bat den Nagore Larrazabalek. Brigadetan parte hartzeko gonbita egin diete emakumei; durangkobf@gmail.com helbidera idatzita eman ahal dute izena.

Ekimena nondik datorren azaldu du Garazi Unzaluk: “Duela urte bi erasoen aurreko protokoloa lantzen hasi ginen txosnetan, baina aurrean ikusi dugu prebentzio lana ere beharrezkoa dela. Brigaden beste esperientzia batzuk egon dira Euskal Herrian, eta hortik hartu dugu ideia. Txosnagunea gu-ne askea izatea gura dugu”.

“Erasoak prebenitzeko jarrera emakumeon jabeakuntzarako tresna bat dela uste dugu”

Emakumeak soilik izango dira brigaden partaide, eta hori arrazoitu gura izan du Unzaluk. Neskei begira, jabeakuntzarako ariketa lez planteatu dute: “Gu-ne aske bihurtzeko asmoaz gainera, emakumeen jabeakuntza kolektiboa lortzea ere bada gure helburua. Erasok prebenitzeko jarrera emakumeon jabeakuntzarako tresna bat dela uste dugu”.

Argi dute, edonola ere, esperientzia honetatik aparte, jaietan batzen den jende guztia dela erantzukizuna, neska zein mutil. “Denon ardura da hemen gertatzen dena, eta erne egon behar dugu denok”.



Egitasmoa babestu duten hainbat emakume, talde argazkian, Pinondon.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

hitz
liburudenda

artekalea, 23 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

HELDUENTZAT



BORROKA ARMATUA ETA KARTZELAK
Zuriñe Rodríguez & Oihana Etxebarrieta (2016)

UME ETA GAZTEENTZAT



AMALUR (DVD)
Pirritx, Porrotx eta Marimotots (2016)

MUSIKA



LA SALUTXITA
Los Zopilotes Txirriaos (2013)

**RENAULT**
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziazio-baldintza ezin hobeak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**

**RENAULT**
OCASIÓN

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKE AUTO BATENGATIK

GAURSAArriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

Umeak eta gazteak izango dira protagonista lehen asteburuan murgilduko diren sanfaustoetan

Atzo ospatu zuten herriko jai egun handia; hilaren 22ra arte segituko du jaiak

DURANGO Markel Onaindia
Durangon jai usaina dago martitzenaz geroztik. Izan ere, Txosnagunean martitzenean jaurti zuten txupinazoa, eta udaletxean eguaztenean. Atzo ospatu zuten herriko jai egun handia, eta jende ugari batu zen artopilen banaketan zein paella lehiaketan.

Oraindik hasi baino ez dira egin jaiak, eta umeak eta gazteak protagonista izango dira lehen asteburuan murgilduko diren San Fausto jaietan.

Biharko, Gazte Eguna antolatu dute txosnetan. 13:30ean kamiseta banaketa egingo dute, eta 14:30ean bazkaria. Azken ur-

teetan, ehunka gazte batu izan dira bazkari horretan, eta bihar ere seguru giro itzela biziko dutela. Bazkalosterako, ekitaldia, olinpiadak eta elektrotxaranga iragarri dituzte.

Marmitakoa, 25. edizioan
Bestalde, bihar ere, ohiturazko

marmitako txapelketa jokatu da Landako Gunean, 10:00etan hasita. Txapelketaren 25. edizioa izango da aurtengoa, gainera.

Umeen egun berezia

Jaiak bereziak izaten dira umeentzat, baina oraindik eta bereziagoa izango da domekako eguna, Umeen Eguna baita. Ezkurdin haur parkea ipiniko dute, eta musika eskola inguruan beste hainbat jolas ere bai. Eguneko unerik hunkigarrienetako bat 12:30ean biziko da, La Cuadri Del Hospiko umeak, minbiziari aurre egiten dabiltzanak, udaletxera igotzen direnean txupinazoz txikia botatzera.

Eskola zaharra egokitze lehen lanak auzolanean hasi dituzte

ATXONDO Joseba Derteano
Atxondoko udalak egindako deialdiari erantzunez, 20 bat lagun auzolanean aritu ziren Eskola zaharrean, joan zen eguaztenean. Eraikin horren beheko aldean taberna eta denda txiki bat egokituko dituzte, eta jada badute proiektua. Egitasmo hori eredu moduan hartuta, auzolanean egin daitezkeen lanak burutu zituzten: hormak bota, obra-hondakinak atera, barruak hustu ... Leihoak litzatzen ere aritu ziren. 08:30etik 15:00etara aritu ziren lanean, eta kontainer oso bat bete zuten hondakinekin. Hurrengo baterako, beste auzolan bat deitzeko asmoa dute.

Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko epea, irekita

ZORNOTZA J.D.
“Kultura matxista hausteko” Emakundek 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketaren edizio berria antolatu du. Errespetua, berdintasuna eta elkarkidetzaz bultzatzen dituzten adierazpen artistikoak sarituko dira. Taldeka edo bakarka aurkezteko aukera izango da, azaroaren 9ra arte. Sari banaketa Urdulizen egingo den Beldur Barik Topaketan izango da, 26an. 500 euroko bi sari nagusi eta aipamen bereziak emango dira.

Bertsolari gazteen txapelketa, azaroan

MALLABIA J.G.
Mallabiko Gazte Taldeak bertsolari Gazteen II. Txapelketa antolau du azarorako. Bi kanporaketa izango dira zortzi bertsolarigaz. Saio bakoitzeko bi onenekin finala izango da. Azaroaren 4ko bertso afarian Mikel Artola, Gorka Maiz, Eneko Araiztegi eta Amaia Elizagoien arituko dira Trabaku Goikon. Azaroaren 18an Trabaku behekoan, berriz, Unai Mendizabal, Eñaut Martikorena, Mikel Retolaza eta Eli Pagola. Finala abenduaren 2an izango da.



Eguaztenean hasi ziren ofizialki jaiak, udaletxean.



Paella lehiaketan giro bikaina sortu zen Txosnagunean.

Galdeketaren aldeko sinadurak biltzen

Lehen astean, 200 sinaduratik gora batu dituzte

DURANGO Jone Guenentxea
Joan zen egunean abiatu zuen Durangoko Gure Esku Dagok galdeketaren aldeko sinadura bilketa. “Durangaldean 2017an egingo den estatus politikoa- ren inguruko herri galdeketa hainbat pauso eskatzen ditu, eta horietako bat herritarren sinadurak biltzea da, haien atxikimendua erakusteko. Durangoko herritarrei galdetzen diegu ea bat egiten duten Eus-

kal Herriaren egituraketa politikoaz 2017an egingo den herri galdeketarekin”. Helburua da durangarren %5ek gutxienez sinadura ematea (1.500 sinadura inguru). Lehenengo aste honetan, 200 sinaduratik gora batu dituzte. Sinadura bilketa Gure Esku Dagoren mahaietan egingo dute. Eguen arratsaldetan eta zapatu goizetan Andra Mariko elizpean egongo dira, urte amaiera arte.



Sinadurak egunetan eta zapatuetan batuko dituzte, Andra Mariko elizpean.

Olio isuriagatik, Alde Zaharra hankaz gora

DAZ eta EH Bildu gertakariak mintzatu dira

DURANGO J.G./M.O.

Garbiketa makina batek olio isuri zuen barikuan Alde Zaharrean, gura barik. Horrek arazoak ekarri zituen oinezkoentzat, eta suhiltzaileek harea berezi bat bota behar izan zuten kaltea gutxitzeko. Gero, harea kendu, eta kalea garbitu behar izan zuten garbitzaileek. DAZ auzo elkartearen ustez, olio isuriak eragina edukiko du aurreantzean: “Lurra labainkorra zen berez, eta orain labainkorragoa izango da, oinezkoentzat horrek dakarren arriskuagaz”. DAZ ez dago gustura Alde Zaharreko garbiketa sistemagaz, orokorrean, eta udala jo du gertatutakoaren errudun. “Herritarrei kalitatez eman beharreko zerbitzuen inguruan, udal gobernua erabakiak hartu ez izanaren ondorioa da”.

EH Bilduk ere kritika agertu du barikuko gertakariaren ostean, eta adierazi du agerian geratu dela garbiketako kontratua luzatzea “hautu txarra” izan dela. “Gertakari honen atzean dagoena ez da garbiketa maki-

na baten akats puntual bat, kale garbiketari diharduten langileek behin baino gehiagotan adierazi duten arazo bat baizik: kale garbiketaren kontratua berrikusi beharra dagoela, ez

DAZ auzo elkarteak:
“Lurra labainkorra zen berez, eta labainkorragoa izango da orain”

dagoelako Durangok eta durangarrok ditugun beharrianetara egokituta”.

10 urteko kontratuaren ostean, 2014an urte biko luzapena onartu zen, eta aurtengo maiatzean beste 9 hilekoa. EH Bilduren esanetan, teknikariak Garapen Jasangarriko batzordean aurkeztutako txostenaren arabera, kalea garbitzeko ibilgailuak berritu beharrean zeuden, “oso zahartuta” zeudelako. “Baina udal gobernu taldeak, beste behin, ez zuen jaramonik egin”, koalizioaren arabera.



10

Astola duela 10 urte jaio zen. Hasierako ideia honakoa zen: Durangaldeari buruzko ikerketa gaiak eta historia aldizkari baten biltzea, baina “adituen” arlotik atera eta edonork ulertzeko moduan landuz eta erakutsiz. 10 urteetako ibilbidean 100 erreportaje inguru argitaratu dituzte. Durangaldetik atera barik, historiaz berba egin dute, arteaz, folkloreaz, arkitekturaz, planifikazio zein azpiegituraz, musikaz, gizarte arazoez... beti zehaztasunez eta gai bakoitzean adituak eta arituak zirenen eskutik. 10. urteurreneko aldizkariak ere gai mamitsuak eskaintzen ditu. Durangaldeko liburudenda eta papertegietan ezezik, Gerediaga Elkartearen egoitzan ere eskuratu daiteke 5 eurotan.



ASTOLA, HAMARKADA BETE DUEN ALDIZKARIA



NORANZKO BI DITUEN TRENA

Durangoko trenaren lurperatze proiektuari buruzko lan zabala idatzi du Marta Aranbarri kazetariak, proiektuaren hasiera, bilakaera eta egungo egoera azalduz. Unibertsitatetik Milia Zabala eta Eneritz Trigueros ikasleen proposamenak ere ezagutzeko aukera dago.



HUMBOLDT GURE ARTEAN

1801. urtean Euskal Herrira egindako bidaiari Durangaldekoe hainbat leku bisitatu zituen. Gero, ikusitako eta bizi izandakoak gutun eta eskuizkribuetan jaso zituen. Jose Mari Uriartek laburbildu ditu.



DURANGALDEKO PAISAI-INDUSTRIALAK

Eskualdeko ekonomiak oinarri industrialak ditu, baina pertzepzio paisaia duen eraginak ikuspegi ezezkorra sortzen du askorengan. Amaia Martinezek historian doktoreak kultur ondareztat jotzeko arrazoiak plazaratzen ditu.



ANBOTOKO HEREJEAK

XV. mendearen erdialdera, Durangon mugimendu erlijioso heterodoxo bat agertu zen “Anbotoko herejeak” lez ezagutu zena. Ander Berrojalbiz historiazale eta idazleak askorentzat ezezaguna den garaira eramango du irakurlea.



ELORRIOKO ESKOLA ESPERIMENTALA

60ko hamarkadaren erdialdera, Jose Antonio Sistiaga, Esther Ferrer eta Jorge Oteizaren eskutik hezkuntza proiektu aitzindariak burutu zen. Hala ere, ez zuen ibilbide luzea izan. Mikel Onandia arte historialariak idatzi du erreportajea.



DURANGOKO PLATERUAK

Nortzuk ziren? Zilarginak ezezik, kopla-bertsuetan ere zorrotz ibili eta tartean gabon garaian etxe askotan abesten den “Ator ator mutil” kantuaren egileak durangarrak ziren. Antton Mari Aldekoa-Otalorak dakar euren istorioa.

Victor Uriartek irabazi du 2017ko egutegiko argazki lehiaketa

Uriarte argazkilari atxondarraren argazki-sortak lehiaketako 500 euroko saria eskuratu du

DURANGALDEA J.D.

ANBOTOk argazki lehiaketa antolatzen du urtero, egutegia osatzeko. Parte-hartzaileek Durangaldeko 13 herrietako argazkiak aurkezten dituzte. Orain arte, sari nagusia argazkirik onenaren egileak jasotzen zuen. 2017ko egutegirako, baina, oinarrietan aldaketa egon da, eta argazki-sorta onenari eman diote saria. Aurkeztutako 8 parte-hartzaileen artean, Victor Uriarte atxondarrak irabazi du. Argazkizale honek urteak daramatza argazki-kameragaz inguruko txokoak islatzen. Emaztea du laguntzaile. “Argazkiak paisaiei eta baserriei ateratzea

gustatzen zait, batez ere”, dio Uriartek. 2010ean aurrejubiltu zenetik, denbora gehiago du zaletasun kutun honi eskaintzeko.

Hau ez da atxondarrak irabazi duen lehenengo lehiaketa. Atxondoko Udalak antolatutakoa irabazi zuen. ETBko eguraldi saiora ere sarritan bidali ditu Durangaldeko argazkiak.

Mendi martxen irudiak ateratzen ere ibiltzen da askotan Uriarte. “Semeak parte hartzen duenean, argazkiak ateratzera joaten gara. Aurten, Iurretako mendi martxaren argazkiak atera ditugu, eta Zaldai elkar-teari pasatu dizkiogu”.



Victor Uriartek sarritan parte hartu du argazki lehiaketa honetan.

Azokarako prest

Durango Azokarako prest izango da 2017ko ANBOToren egutegia. Landako Guneko Du-

rangaldeko Argitalpenen stantdean eta Durangaldeko hainbat saltokitan eskuratzeko aukera egongo da, urtero moduan.

Pentsakera baikorra landuko dute herriko nagusiek

GARAI M.O.

Durangaldeko Amankomunazgoaren eskutik, pentsakera baikorraren inguruko ikastaroa burutuko dute Garain, azaroan zehar. Hain zuzen ere,

Pentsamendu baikorraz gainera, emozioen lanketa ere jorratuko dute ikastaroan

azaroaren 7an, 14an, 21ean eta 28an izango dira saioak, 17:30etik 19:00etara bitartean. Dagoeneko eman ahal da izena. Pentsamendu baikorraz gainera, emozioen lanketa ere jorratuko dute.

Hezkuntza eragileak Berton Bertokoagaz

EHIGE, Sortzen eta Iaren atxikimendua jaso dute

DURANGALDEA M.O.

Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartearen (EHIGE), Sortzen elkartearen eta Ikasle Abertzaleen babesa jaso dute, asteen, Berton Bertokoa dinamikako kideek. Durangaldeko bederatzi eskola publikotan bertako eta sasoiko produktuak ematea gura dute, eta horiek jantokian prestatzea ere bai. Durangoko Landako ikastetxean irudikatu dute hezkuntza arloan lanean dabilen elkar-teen atxikimendua.

EHIGEko Lourdes Imazen ustez, “ekimen honek erakusten duena da gaur egungo araudiak ez dituela asetzen familien beharrak”. Ikastetxeetan catering sistema ezarrita dago.

“Bada garaia araudia aldatzeko. Ikastetxe bakoitzak eduki behar du aukera jantokien gestioaz erabakitzeko”.

Sortzeneko Olatz Eigurenek esan du “jantokien gaia lehentasunezkoa” dela. Elikadura egokia, osasuna, ingurumena eta bertako nekazaritza sustatzeaz gainera, ikastetxe bakoitzean jantoki bat edukitzeak lagundu egin dezake elkarbizitzan eta euskararen zabalkundean sakontzen.

Artzainen babesa ere bai

Bestalde, duela pare bat aste, hainbat artzainek ere bat egin zuten gurasoen aldarriagaz, Euskal Herriko artzain txakur-rren txapelketan.



Gurasoak eta hezkuntza eragileen ordezkariak, Landakon, martitzenean.

Neguko azokarako izen-ematea urriaren 21era artekoa da

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Azaroaren 27an, Euskal Herria etorbidean ipiniko dituzte Zaldibarko XVIII. Neguko Azokako erakusmahaiak. Beraien baserrietan landutako produktuak azoka horretan saldu gura dituzten Durangaldeko, Lea-Artibaiko eta Busturialdeko nekazariak urriaren 21era arte izango dute izena emateko aukera. Zaldibarko udaletxean edo 94 682 70 16 telefonora deituta eman daiteke izena.

Azaroaren 27an, Euskal Herria etorbidean ipiniko dituzte Zaldibarko Neguko Azokako erakusmahaiak

Urtero bezala, ortuetan eta baserrietan landutako askotariko produktuen erakusketa eta salmenta ezezik, lehiaketa ere egingo dute Zaldibarko Neguko azokan. Barazki, fruta, txakolin, ogi, ezti eta gaztarik onenak sarituko dituzte, eta baita ondoen apainduriko erakusmahai ere. Ortuari eta fruta onenei 125 euroko saria emango diete; txakolin, ogi, ezti eta gazta onenari 100 euro; eta 125 euro ondoen apainduriko erakusmahaiari. Sari bana-keta 14:00etan egingo dute.

Italiako lurrikaran kaltetuei laguntzeko bazkaria, etzi

Espagetiak amatriciana saltsagaz eta Alessandro Rutaren kontuak eta kantuak izango dira menua



Otxandioko plazan izango da bazkari solidarioa.

OTXANDIO Joseba Derteano Abuztuaren 24an lurrikara suntsikor batek astindu zuen Italia erdialdea. Amatrice izan zen ondorioz larrienetakoak jasan zituen herria, 200 hildako baino gehiagogaz. Herria txikituta geratu zen, eta herritar askok kanpamentuetan ebakuaturik darraite oraindik. Domeka honetan, kaltetuei laguntzeko bazkari solidarioa izango da, Otxandion bizi den Alessandro Ruta italiarraren ekimenez.

Ruta ez da lurrikara gertatu zen ingurukoa — 800 km-ra dagoen Milanetik etorri zen Otxandiora — baina jazoera latz hark “barrua irauli” ziola azaldu du. Horregatik, bere ekimenez, eta Herri-olako Alkarregaz prozesuagaz batera, bazkari solidarioa antolatuko

du domekan, 12:30etik aurrera, Otxandioko plazan. Amatriciana izeneko saltsagaz prestaturiko espagetiak gertatuko dituzte: “Mundu osoan ezaguna den saltsa da”, dio Rutak. Osagaiak herriko taberna eta denda guztien ekarpenari esker lortu dituzte. Bazkaritik jasotako dirua Italiako Gurutze Gorriak hondamendian kaltetutakoei laguntzeko zabalduko kontu korrontean sartuko dute, Otxandioko herri-tarren izenean.

Ametrice ingurua eta lurrikaren ondorioak ezagutara emateko azalpenak ere emango ditu Alessandro Rutak, beren beregi horretarako prestatutako materialaren laguntzagaz. Bazkarian, Italiako zonalde hartako hainbat abesti kantatuko ditu.



Garbiketean parte hartu zutenak, plazan, zikinak batuta.

“Uralita, koltxoia... denetik aurkitu dugu”

Elorrioko Zumelegi erreka garbitu dute auzolanean, 40 bat herritarren partaidetzagaz

ELORRIO Jone Guenetxea Batzuetan, erreka zabortege lez erabiltzen dituzte herritarrek. Ondorio hori atera daiteke Elorrioren joan zen barikuan egindako erreka garbiketaren ostean. 40 herrikideren artean, Zumelegi erreka garbitu zuten auzolanean. Cross Culture Surf elkartearen ekimenagaz bat egin zutenek azaldu dutenez, erreka uste baino zikinago aurkitu zuten. “Uralita, koltxoia, bizikleten piezak, umeen karroak, gasolio biltegia... denetik aurkitu dugu”.

Goizean goiz, 09:00etan ipini zuten beharrean hasteko hitzordua, eta hiru taldetan banatuta, erreka garbitzeari ekin zioten. Cross Culture Surf elkarteak eta udalak egin zuten deialdia.

Zikinak, plazara Goizean zehar erreka garbitzen ibili eta gero, plazan utzi zituzten batutako zikin guztiak, herritarrek kontzientziatu guran. Ondoren, garbiketean parte hartu zuten guztientzat luntxa eman zuten.

Berrio-Otxoako trafikoa, kamera bidez kontrolatua

ELORRIO M.O. Berrio-Otxoa kalean, trafikoa kamera sistema batez kontrolatuko dute. Udalak aho batez onartu du aldaketa, eta urtea amaitu aurretik sistema berria ezarri gura dute. Ez da uneoroko bidezaintza izango, baizik eta matrikulak begiratzeko bakarrik. Baimendutakoak bakarrik sartuko dira.

Garajeetarako eta larrialdietarako, 24 orduko baimena egongo da, baina, bestela, hainbat neurri ezarri dituzte. Kaleko etxe bakoitzean, auto biren-tzako baimena edukiko dute. 09:00 eta 13:00 bitartean egin ahalko da karga eta deskarga, eta merkatariak 06:00etatik 14:00etarako aukera edukiko dute. Gidariak denbora tarte bat izango dute: 2 eta 30 minutu artekoa. Minutu 2 baino gutxiago bada, autoa ez dela gertatu ulertuko da, handik trafiko lez pasa dela soilik. Denbora ez errespetatzeak ondorioak ekarriko ditu; 30 euroko isuna ipiniko dute -15 azkar ordaintzen bada-, eta ordu estra bakoitzeko 10 euro gehituko da isuna. Idoia Buruaga alkatearen arabera, auzokide eta merkatariak landu dute gaia.

Zergak bere horretan utziko ditu udalak

ELORRIO M.O. 2017ko udal tasa eta zergak bere horretan, dauden moduan, utzi ditu udalak. Joan zen egue-neko osoko bilkuran onartu zuten igoerarik ez ezartzea, udal talde guztiek aho batez baieztatuta.

Jon Ander Gracia zinegotziak (EH Bildu) azaldu zuen zergak mantentzeko apustua egin dutela, jakinda ere Aldunditik jasotzen duten Udalkutxako dirua gutxitzeko aurreikuspena eginga dagoela: “Udalaren egoera ekonomikoa ona dela ere badakigu, eta egokiena zergak bere horretan uztea dela uste dugu”.

Hobariak Bestalde, zergei eta tasei lotutako hobarietan aldaketa pare bat egin dituztela adierazi zuen Gracia zinegotziak. Batetik, Gobernu Kanpoko Erakundeak eta irabazi asmo bako elkarteak ez diete lurzoruen erabileragatik kobratuko posturen bat ipintzerakoan; bestetik, auto klasiko eta zaharren jabeek hobari bat edukiko dute, baina autoak egoera onean daudela frogatzera derrigortuta egongo dira.

SEI HANKAKO MAHAIA

FRAN GARATE
PP



Gurutze Gorriko boluntarioak eta gainerakoak

Gurutze Gorriko boluntarioak zoriondu eta eskertu nahi ditut, hainbeste miresten eta txalotzen dudana elkarte horren partaide izateagatik. Euren eguneroko lanagatik zoriondu nahi ditut, eta txupinazo egunean, zuzenean eta aurretiaz prestatu barik egin zituzten bi jarduerak, benetako jarduerak, denok baloratzea nahiko nuke. Euren lan eskuzabala begi bistakoa da, eta sari bat lortzearen parekoa den errekonozimenduaren aurretik jarri dute. Lan eskuzabala ospearen eta protagonismoaren aurretik, beraz.

Eskerrik asko, ba, Gurutze Gorriko boluntarioei.

Bestetik, durangar guztiak zoriondu nahi ditut, merezitako jabeak eman dietelako hasiera. Nik bizi izan dudana, giroa ezin hobea izan da, eta iritzia desberdina dutenen artean ere batasuna izan da nagusi. Hala bizi izan dut nik zenbait forotan eta zenbait protagonistenekin. Ideologia desberdineko zinegotziek elkarrekin ateratako argazkiak datozkit gogora, eta zenbait kazetarirekin eta ia ezezagunak egiten zaizkidan herritarrekin ikusitako partidua, Athleticen neskena. Eta duela gutxi gertaera: Iu eta Jb lagunekin bat egitea. Eurek badakite zutabe honetan aipatuko ditudala, baina niretzat, durangar guztien ordezkari dira, gure San Fausto jai maiagarrietako edozein une atseginean bat egin dezakezuen durangar guztien ordezkari, hain zuzen.

Durangar guztiok, ondo ibili eta ondo pasa. Zorionak!

**Erredakzioan itzulia*

Urkiolako maniobra militarrez galdezka

Maniobrak salatu ditu EH Bilduk kongresuan

ABADIÑO Itsaso Esteban Abuztuaren 30ean, Espainiako armadako kideak ibili ziren Urkiolako parke naturalean maniobrak egiten. Asteon, Espainiako Defentsa Ministroari hainbat galdera eginez, idatzi bat aurkeztu du EH Bilduk kongresuan. “Larria deritzogu babesturiko naturgune batean ma-

niobra militarrek egiteari”, dio EH Bilduk, “baina are larriagoa iruditzen zaigu instituzio militarrek ezelako baimenik eskatu barik jardutea”. Maniobrak Aldundiari, Urkiolako Patronatuari edo udalari baimenik eskatu barik egin zituzten.

Defentsa ministroari bi galdera egin dizkio EH Bilduk:

“Euskal erakundeek behin eta berriro gaitzetsi arren, gure lurretan armadaren jarduna burutzen jarraitzeko asmoa al dauka Ministerioak?”, “Espainiako armada naturgune babestuen inguruko legediaren gainetik dagoela uste al du ministroak?”.

Abadiñoko Udalak ere kritikatu zituen maniobra militar horiek, eta udalean ordezkari-tza daukaten hiru alderdiek Defentsa Ministerioari Abadiñoren kexa helarazteko idatzi bat adostuko dutela iragarri zuten arren, Jose Luis Navarro alkateak asteon esan duenez, ez dute testu bat adosterik lortu.

Herri galdeketa berbagai herri batzarrean

ABADIÑO J.Derteano Abadiñoko Gure Esku Dago erabakitze eskubidearen aldeko elkarteak herri batzarra deitu du urriaren 20rako, egunerako. Traña-Matienako Errota kultur etxean izango da, 19:00etan. 2017an herri galdeketa egiteko bidean, herritarren parte hartze aktiboa bilatzea eta egutegia zehaztea dira batzarreko helburu batzuk.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

DURANGALDEA ASTEON

A-8ko plataformaren ‘crowdfunding’

DURANGALDEA > A-8ko bidesariaren aurkako plataformak ‘crowdfunding’ edo diru-bilketa abiatu du www.goteo.org webgunean. Kideek diotenez, orain arteko ekimenak elkarteko kideen ekarpenei esker antolatu dituzte. “Baina hau ez da nahikoa. Bidesaria kentzea gura badugu, gure auzokideen babesa behar dugu”.


Lanpostua bilatzeko laguntzarako tailerra

ABADIÑO > Abadiñoko Udalak lanpostua bilatzeko tailerra jarri du martxan gazteentzat. Hautaketa prozesu eta lan elkarriketen aurrean nola jokatu, edota curriculumak zein aurkezpen gutunak egiten erakutsiko diete. Azaroaren 5ean izango da, eta izena emateko epea urriaren 28ra arte dago zabalik.

Ikastaroak sortzeko proposamen bila

OTXANDIO > Udazkenerako ikastaroak antolatzen hasi da udala, eta herritarrei proposamenak egiteko aukera eman die. Ideiaren edo nahiren bat duenak, udalletxean edo kultura@otxandio.net helbidean eskatu dezake orria. Bihar amaituko da epea, baina epea kanpo jasotakoak aurrerago hartuko dituzte kontuan.

Mikel Inunziaga 'Inun' (1983) | Zornotza



Iñaki Mendizabal

“Poema bakoitzari dagokion melodia bilatzeko lana oso atsegina egin zait”

‘Da Nola’ disko berria plazaratu du ‘Inun’ musikari zornotzarra. Urriaren 20an aurkeztuko du, Bilbon

> MUSIKA Itsaso Esteban

Bizi zaren hiriko Kafe Antzokian aurkeztuko duzu ‘Da nola’ disko berria. Zer sentsazio daukazu aurkezpenagaz?

Niretzat aurkezpena Kafe Antzokian egitea ohore bat da, sari bat. Oso sentsazio onak izaten ari naiz disko berriagaz, entsegu oso politak egiten gabiltza taldekideok, eta gauza ederra izango dela uste dut.

‘Berreginez’ lehenengo diskoa ere Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu zenuen, ezta?

Bai, baina hura bakarkako proiektua zenez, ez nuen eszenatoki handian jo; goiko aretoan, giro intimoagoan aritu nintzen. Urriaren 20ko kontzertua Kafe Antzokiko areto nagusian izango da, bandagaz.

Birako kontzertuak bandagaz egingo dituzu?

Bai, baina kamaleonikoa izan naiz beti horri dagokionez, eta horrelaxe jarraituko dut: leku batzuetan bandagaz joko dut, eta egoeraren arabera binaka, hirunaka edo boskote formatuan. Izan ere, nire gitarragaz, pedalekin eta *looper*-agaz ere oso gustura ibiltzen naiz.

Zer musikarigaz diharduzu boskotean?

Musika munduan murgildu ahala, ezagutu eta kidetasuna sentitu dudana jendea da bandan laguntzen didana. Bateria jotzen Argibel Euba dabil, Dani Tomás gitarra jotzen, Bihotz Gorospe koroak egiten eta perkusioa jotzen, eta Ekain Alzola baxua jotzen.

Zein da ‘Da nola’ izenburuaren esanahia?

Karmele Igartuaren *Malekoia* poemakoak dira bi hitz horiek. “Ez da non, da nola”, esaten du. Disko honetan euskal poeten olerkiak musikatu ditut, eta neuk ere formari garrantzia handia eman diot.

Zure testurik ez dago diskoan. Ez duzu sumatzen zeure letrak kantatzearen falta?

Horixe da disko honen berezitasuna: letra guztiak euskal idazleen poemetatik datozela. Gustuko dut idaztea eta kanta baten bide osoa egitea, baina lehenengo diskoan ere Iñaki Mendizabalen hitzak zeuden, eta ohituta nago beste batzuen hitzak musikatzera. Diskorako poema bakoitzari dagokion

melodia bilatzeko lana oso atsegina egin zait.

Zer poetaren letrak aukeratu dituzu diskorako?

Karmele Igartua, Miren Agur

Meabe, Itxaro Borda, Jon Mirande, Castillo Suarez, Bernardo Atxaga, eta Jon Arano-ren letrak hautatu ditut.

Zelan egin duzu hautaketa?

2015ean eta 2016an Gutun Zuria literatur jaialdian eta Bernardo Atxagaren emanaldi batean parte hartu nuen, poemak musikatu. Erotismoa eta delitua izan ziren Gutun Zuria jaialdiaren bi edizio horietako gaiak, eta bere poemak musikatzeko enkargua egin zidan, bestalde, Atxagak. Diskoan daude poema horiek, ziklo hau plazaratu beharra zegoela pentsatu nuelako.

Zure lehenengo diskotik, zer pauso eman duzu?

Aldaketa nagusia instrumentazioan dago: soinu aldetik aberatsagoa da hau. Lehenengo zuzenean eta neuk bakarrik grabatu nuen, eta bandagaz dihardut orain. Gainera, urteotan ikasi dudana, badago progresio orokor bat.

Gustura zaude ‘Berreginez’ zure lehenengo diskoak egin zuen bideagaz?

Erabat. Zeretik hasi nintzen *Berreginez* diskoagaz, eta espero ez nituen ateak zabaldu dizkit. Sorpresaz betetako bidea izan da.



INUN
DA NOLA
2016



Eraikuntzarako materiala

MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

clínica**dental**

b. unamunzaga

hortzklinika

e. etxebarria



ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

08:00etatik 21:00etara ZABALIK

Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

> BERTSOLARITZA Itsaso Esteban Urriaren 15ean hasiko da Bizkaiko bertsolari txapelketako udazkeneko fasea. Bost kanporaketa eta hiru finalaurreko izango dira fase horren barruan, eta abenduaren 17an jokatuko dute finala. Mungiako Olalde aretoan burutuko dute, urriaren 15ean, txapelketaren udazkeneko faseko lehenengo kanporaketa, eta Durangaldeko hiru bertsolari daude saio horretan kantatuko duen seikoitean: Aitor Bizkarra, Garikoitz Sarriugarte eta Miren Amuriza.

Bizkaiko 30 bertsolarik parte hartuko dute urritik abendura arte jokatu den txapelketako saioetan

Bizkaiko 30 bertsolarik parte hartuko dute urritik abendura arte jokatu den txapelketako saioetan, eta Durangaldekoak dira horietariko zazpi. Txapelketaren udaberriko fasean bildutako puntuei esker lortu zuten udazkeneko faserako txartela Txaber Altube eta Aitor Biz-

Bihar ekingo diote bertsolari txapelketaren bigarren faseari

Bizkaiko bertsolari txapelketaren udazkeneko faseko lehenengo saioan parte hartuko dute Aitor Bizkarra, Garikoitz Sarriugarte eta Miren Amurizak



Garikoitz Sarriugarte zaldibartarrak Orozkon jokatu zuten kanporaketan eskuratu zuen bigarren faserako txartela.

karra abadiñarrek, Garikoitz Sarriugarte zaldibartarrak eta Beñat Romero zornotzarrek, eta Bizkaiko txapelketaren finalean inoiz kantatu izan dutelako

lortu dute udazkeneko fase honetan parte hartu ahal izateko txartela Beñat Ugartetxeak, Eneko Abasolo *Abarkas*-ek eta Miren Amurizak.

Fase honetako bederatzi bertso saioetatik bakarra jokatu dute Durangaldean: azaroaren 5ean, Zaldibarren egingo dute bosgarren kanporaketa.

GEURE DURANGALDEA

MARTIN LOIZATE

Ikaslea



Gazte egune

Ehunka gazte, beste hainbeste aulki, eta mahai pilo bat ilarran. Musika, lapiko handi bat eta heldu berri den gazte bat, galduta bezala, Landakotik datorrena, aurtun txosnak Pinondon daudela oraindik enteratu barik, antza. Kolore bereko kamiseta jantzirik daramate denek, eta mahaira bazkaltzera jarri aurretik, falta diren plater, edalontzi eta zapiak bananduko dituzte mahairik mahai.

Baina, kamiseten koloreaz gainera, durangar eta gazte izateak ere batzen ditu Pinondora joan direnak, Durangon gazte izateak esan nahi duenarekin: ia ezinezkoa izatea enplegua edukitzea, eta hau baldintza duinetan egitea (are gehiago gaur egungo egoeran). Esan nahi du aisialdirako aukerak (musika entseatzeko adibidez) eskuragarri ez izatea; esan nahi du etxebizitza eskubide gisa ukatua izatea; esan nahi du udal gobernuaren arduetatik azkena izatea (nahiz eta programa ponposo asko iragarri hori ezkutatzeke).

Bazkaurrean kamisetak banandu dituzte lau lagunek, eta Landakotik iritsi berria denak ere, aldean zeraman bihozduen kamiseta grisaren ordeztu jantzi du besteen berdina. Hala, hark ere bat egin du Durangoko gazte uholdearekin, durangarra eta gaztea delako, eta gainontzekoen problematika konpartitzen duelako. Jaietan, behintzat, ez du besteek jarritako erritmora dantza egingo, inoren probetxura kontsumituko.

Urtero lez, Gazte Egune ospatuko dugu urriaren 15ean, Durangon, jaietan gure nahi eta beharrak asetzeko, gazteok gazteontzat antolatutako eguna. Eta zergatik, jaietz landa, horrelako alternatibak beste arlo guztietara ez zabaldu?

Disko berria kaleratu du Silboberri elkarteak

‘Handik eta hemendik’ izenburua du diskoak

> MUSIKA I.E. Musika klasikoan espezializatuta dagoen Orpheus Classical diskoetxearen bidez plazaratu du Durangoko Silboberri txistu elkarteak *Handik eta hemendik*, *basque impressions* izenburuko disko berria. Elkarrekin kalera-zen duen bosgarrena. Tradizioa eta modernitatea uztartuta ageri dira disko honetan, eta XX. eta XXI. mendeko txistura-ko konposizioak biltzen ditu.

Aitor Amilibia, Sergio Torices, Iñaki Martin eta Ortzi Torices txistulariek parte hartu dute diskoaren grabazioan, eta

baita nazioartean ezagunak diren hainbat musikari euskaldunek ere: Xabier Calzada flautistak, Sergio Barranco klarinetistak, Artur Sustatxa eta Guadalupe Molina tronpetariak eta Anjel Ituarte kontrabaxistak, esaterako. *Aire zahar bat*, *Apolo eta Marsias* eta *Insomnio* abestietan, bestalde, Quodlibet ganbera-orkestrak eta lau perkusio-jolek ere parte hartu dute.

Hamahiru kanta biltzen ditu *Handik eta hemendik*, *basque impressions* diskoak, eta Jesús Egigurenen *Partita* lana berreskuratu dute diskorako.

Kine Rally film laburren lehiaketaren II. edizioa

Zinezaleen bilgune izango da Zornotza asteburuan

> ZINEMA I.E. Asteburu honetan elkartuko dira, Zornotzan, Kine Rally film laburren lehiaketaren parte-hartzaileak: 24 orduan film labur bat osatzea izango da lehiaketan parte hartzen duten zinezaleen erronka. Antolatzaileek zapatu iluntzean jasoko dituzte zinezaleek lehiaketara aurkezturiko lanak, eta urriaren 16an, 12:00etan, Zornotza Aretoan egongo dira ikusgai. Ondoren, sari banaketa egingo dute.

Zornotzako Kine Zineklubak antolatuta, iaz egin zuten lehiaketa honen lehenengo edizioa,

eta zortzi taldek osatu zituzten filmak. Zuzenkinema taldearen *Amore* izenburuko lanari eman zion epaimahaiak 500 euroko sari nagusia. Gai librean jardun ziren lehiaketako parte-hartzaileak iazko lehenengo edizioan.

Urriaren 16an, 12:00etan, Zornotza Aretoan emango dituzte lehiaketara aurkezturiko lanak

Malmö
Khea Ziater

Urriaren 29an, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUINEA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK	2016 Basoa El bosque URRIAK 20 00:00etan BEGIRA PHOTO 2016 "BASOA" ERAKUSKETA	URRIAK 23 18:00etan AIKO ERROMERIA DANTZA	Praktikatu eta Bizi URRIAK 26 19:00etan BERBALAGUN AURKEZPENA
---	---	---	---



GREMIOEN GIDA



ARKITEKTURA

**ARKI
TEK
SAN**

OBREN ZUZENDARITZA
PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
NEURKETAK, PLANOAK
ETA AURREKONTUAK EGITEA
ERAGINKORTASUN
ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

WWW.ARKITEKSAN.COM
622 745 419
NIZETO URKIZU 12. ELORRIO
INFO@ARKITEKSAN.COM



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



LOREZAINITZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23-1 ezk DURANGO
PATXI: 696 463 085



ITURGINTZA

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.

**UNAI
GARAY**

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



LEIHOAK

Leihoak

ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA

Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO
info@ventanas-durango
Tel.: 652 736 339
www.ventanas-durango.com



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

“Objektu eder bat egitea gura izan dut: itxurak edukia indartzea”

Hiru argazki liburu aurkeztuko dituzte Begira Photo jaialdiko lehenengo egunean, urriaren 20an, Durangoko Museoan. Tartean, Jesus Mari Arruabarrenaren argazkiak eta testuak dauzkan ‘Friederike’



Noctis Books argitaletxeagaz argitaratu du Arruabarrenak liburua.

> ARGAZKIGINTZA I. Esteban Durangoko Museoan izango da Begira jaialdiaren bosgarren edizioaren barruko lehenengo ekimena. ‘Calma’, ‘Pérdida de lo absoluto’ eta ‘Friederike’ argazki liburuak aurkeztuko dituzte, urriaren 20an, 18:00etan hasita. Jesus Mari Arruabarrenaren lana da ‘Friederike’, II. Mundu Gerraren ostean Espainian identitate faltsuagaz bizi izan zen mediku naziari buruzko istorioa.

Pertsonaia erreal baten historia fikzionatu duzu liburuan. Bai, liburuak badauka fikzio

puntu bat, baina protagonistaren biografia erreala da ardatza. Friederike Von Freienfels-en bizitza nahiko fidelitate handiagaz kontatzen dut, baina egoera batzuk neuk asmatutakoak dira. Frogatuta egon ez arren, oso posible ziren balizko hainbat egoera sortu ditut. Pertsonaia horren historiaren kontakizunagaz, bizitza bikoitza daraman jendeaz jardun gura nuen.

Zelan ailegatu zinen ‘Friederike’-ren historia ezagutzera?

Josef Mengeleri buruzko itzulpen bat egiten nenbilen dokumental baterako, eta asko tentatu ninduen istorio hark. Mengelaren historia bestea hainbat kasu ezagutzera eramanez, tartean Friederike Von Freienfels-ena. Espainian —batez ere Costa del Solen— hainbat nazik hartu zuten babesa. Espainiako gobernua esku zabali hartu zituen. Istorio horietatik tiraka ailegatu nintzen Friederikengana, eta errealtate horren sinbolo bat da liburuko protagonista.

Historiako gertakari errealetan oinarritutako fikzio lanak zine-man edo literaturan ikustera gaude ohituago.

Bai, eta nik ere asko edaten dut hortik: zinetik edo literaturatik oso gertu egon daiteke nire liburua. Argazki liburuetan askoz ohikoagoak izaten dira bestelako gai eta estetikak. Egia esan, gero eta gutxiago gustatzen zaidan mundua da argazki liburuena: sarritan, balio fotografiko oso txikiko lanak argitara-

tzen dira, eta oso gauza fribo-loak askotan.

Argazkigintza baino esparru zabalagoak landu dituzu liburua egiteko. Asko ibili zara dokumentazio bila?

Ibili naiz, bai, eta ikusi ditut Friederikeren klinikako argazkiak edo sasoi hartako beste nazi batzuen argazkiak, esaterako. Baina liburuan ez dut batere sartu. Liburuan atmosfera hura birsortzen saiatu naiz. Idazle batek berbekekin egiten duen bezala, irakurlea giro horretan argazkien bitartez sartzea izan da nire ahalegina: biografia bat osatzea, eta bera ibili zen lekua eta sasoiak islatzea. Izan ere, gizon honen historia potentzial handikoa iruditu zitzaidan eduki alde-tik, eta bizi izan zuen atmosfera hura birsortzea erronka polita.

Alemaniatik alde egin ostean, Cadizen, Tangerren eta Madril-en bizi izan zen Friederike. Leku horietara bidaiatu duzu liburuko argazkiak egiteko?

Bai. Friederikeren oihartzuna ekartzen zidaten pertsona, leku eta giroen bila ibili naiz leku horietan. Cadizen zaila egin zitzaidan Friederikek bizi izan zuenaren antzeko atmosferak irudikatzea, eta Tangerren aldiz, denari ikusten nion kutsu hori: jendearen janzkerek, kalean topatzen dituzun egoerek... denak zaramatza garai hartara. Bestelakoa izan zen Tangerreko erronka: kamera ez zaie batere gustatzen, eta ezkutuka ibili behar izan nuen argazkiak egiten.

Diseinu landuko liburua da.

Bai, izan ere, objektu eder bat egitea gura izan dut: itxurak edukia indartzea. Horregatik dauka liburuak mediku dietario itxura, esaterako. Argazkiak, hitzak eta diseinua norabide bertsuan joatea da asmoa. Txelu Angoitia eta neuk kudeatzen dugun Noctis Books argitaletxeagaz argitaratu dut.

Carmen Rivero kubatarraren lana

Carmen Rivero argazkilari kubatarraren *Pérdida de lo absoluto* argazki liburua ere aurkeztuko dute, urriaren 20ko Durangoko Museoko hitzorduan, Begira Photo jaialdiaren lehenengo egunean. El Trapiche Cultural Fotográfica taldeak editatutako lana da liburu hori, eta egilearen berbetan, aurrez ezarritako esanahiak itxuragabetzeko ariketaren emaitza da *Pérdida de lo absoluto* liburukoa: aldaezintzat dauzkagun hainbat erreferente eta eraikuntzari esanahi berriak emateko gonbidapena.



‘Pérdida de lo absoluto’ liburuko irudi bat.

Ximena Almeydaren ‘Calma’ liburua

Pewen Cuadernos de Fotografía argitaletxearen lehenengo lanaren aurkezpena ere hartuko du Begira Photo jaialdiaren seigarren edizioak, urriaren 20an. Ximena Almeydaren *Calma* argazki liburua aurkeztuko dute. Begira jaialdia antolatzen duen Kinua elkartearen eta Hegoamerikako argazkilarien lana ezagutzera emateko sortu duten Muga argitaletxearen proiektua da liburu horren argitalpena. Ros Boisier eta Leo Simoes proiektu horien bultzatzaileak aurkeztuko dute Almeydaren liburua.



Muga argitaletxeak argitaratu du ‘Calma’.

Maialen Bernas | Elorrio, 1996 | **Iñaki Diez** | Elorrio, 1988

“*Liga hasiera honetan gorenean gaude, eta ea luzaroan eusten diogun boladari*”

Elorrioko Buskantzako nesken eta mutilen taldeak beren ligetako liderrak dira lehen partiduen ostean

> KIROLA Joseba Derteano
Areto-futboleko liga indartsu hasi dute Elorrioko Buskantzako talde nagusiek, mutiletan zein nesketan. Bien artean, bederatzi partidu jokatu dituzte, zortzi garaipen eta berdinketa bat lortuta (4-4 nesketan, Sasikoaren kontra derbian). Nor bere ligako liderra da.

Talde bien artean, porrotik ez oraindik. Martxa ezin hobean hasi zarete.

Maialen Bernas: Ez genuen hain ondo hasterik espero. Ez geneukan helburu zehatzik, areto-futbolagaz gozatzea gura genuen. Baina, hasiera honek itzelezko motibazioa eman digu. Aurten entrenatzaile berria daukagu, Gaizka Gallastegi, eta asko eman digu. Gure gainean dago beti, eta hobeitzeko garrantzitsua den zerbait egiten du: akatsak identifikatu, eta horiek zuzentzen lagundu.
Iñaki Diez: Bai. Guri iaz kostatu egin zitzaigun martxa hartzea. Lehenengo itzulia irregularra izan zen. Bigarren itzulian, berriz, dinamika positiboa hartu eta oso ondo aritu ginen. Aurten, iaz amaitu genuen moduan hasi gara. Oso indartsu gabilta, bai. Iaz une batzuetan falta izan zitzaigun erregularitasuna lortzen saiatuko gara aurten. Taldeari dagokionez, iazko bloke berdina eusten diogu.

Lesionatu bat baino gehiago daukazuela irakurri dut.

I.D.: Bai, Jon Uriarte kapitainak orkatilan min hartu zuen, eta hor dago, erizaindegian, luzerako. Felix Leibar ere lesionatuta dago. Taldea indartzeko, bigarren taldetik Josu Leon jokalaria igo dugu.

Talde goleatzaileak zarete. Bederatzi partidutan 64 gol

sartu dituzue bien artean. Zein da golak sartzeko erre-zeta?

I.D.: Ba, geuk ere ez dakigu, egia esan. Indartsu hasi gara, bai, baina hemendik bost partidutara esango dizut zelan goazen arlo horretan (barreak). Taldeak izaera erasokorra dauka, eta golak horren ondorio dira. Hain aurrera joanda, batzuetan hutsuneak uzten ditugu atzealdean, baina, tira, ikasten gabilta. Azkenean, liga hasiera honetan, talde biak bolada onean eta gorenean gaude, eta ea luzaroan eusten diogun. Ez da erraza izango, zelan gabiltzan ikusita aurkariak ere gero eta motibatuago etorriko direlako.

M.B.: Gure taldea ez da hain erasokorra. Defentsan seguru egoten eta sortzen diren aukerak aprobetxatzen saiatzen gara.

Liga hasiera zelakoa izan den kontuan hartuta, zer helburu dituzue aurten?

I.D.: Gaitza da helburuak zehaztea. Talde batzuk sendotu egiten dira, beste batzuk apur bat ahuldu, baina, oro har, oso liga lehiakorra da. Beraz, ez da erraza noraino heldu gaitzkeen neurteza. Gure helburua talde erregularragoa bihurtzea da. Hori lortuz gero, emaitzak horren ondorioa izango dira.

M.B.: Gure helburua ondo pasatzea eta emakumeen areto-futbola aldarrikatzea dira. Eta, jakina, iazko emaitzak eta zortzigarren postua hobetu ahal baditugu, horretan saiatzea.

Maialen, denbora gutxian lortu duzue gorakada ematea. Taldeak hirugarren urtea du aurtengoa.

M.B.: Bai, orain hiru urte sortu genuen, futbolak asetzen ez gintuen lagun batzuen artean. Eta, momentuz, oso gustura ga-



biltza. Hori bai, jokalaria aldetik justu gaude, eta taldea osatzea kostatu zaigu. Beraz, areto-futboleko aritu gura duen edonork atea irekita du Elorrioko Buskantzan.

Iñaki, zein da zure ibilbidea areto-futboleko?

I.D.: Nire koadrilako pare bat lagunek gazte mailako taldea sortu zuten orain 10 bat urte. Elo-

rrioko Buskantzak gazte mailako taldea zuen lehen aldian izan zen. Hainbat herritar ibili ginen talde hartan. Ondoren, desagertu egin zen berrit, jende faltagatik. Gero, Elorrioko B-n hasi nintzen, eta orain zortzi bat urtetik hona lehen taldean nabil.

Biok aspalditik ezagutzen duzue elkar, ezta?

I.D.: Bai, Maialenen entrenatzailea izan nintzen. Bederatzi urte zituztela, futbitoaren entrenatzailea behar zuten, eta sei urtez egon nintzen eurekin.

Zelako jokalaria zen Maialen?

I.D.: Burugogorra (barreak). Baina, adin horretako jokalaria askoren moduan. Esperientzia berria izan zen niretzat, eta eurentzat ere bai. Futbolagaz gozatzen ikasi zezatela nuen helburu. Uste dut horixe dela garrantzitsua.

Eta zelakoa zen Iñaki entrenatzaile moduan?

M.B.: Ez zen bat ere gogorra. Nik beti esaten nion apur bat gogorragoa izan behar zuela (barreak).

Iñaki, klubean aurten berregituraketa bat eman dela irakurri dut sare sozialetan. Zertan datza?

I.D.: Elorrioko Buskantzan klubeko kideen arteko elkarlana-gaz eramaten dugu dena. Aurten Elorrioko B taldeko hainbat jokalaria erretiratu egin dira, adinagatik edo nor bere arrazoiengatik, eta klubak berregituraketa bat egin behar izan du. Jende falta dela-eta, aurten ez da bigarren erregional mailako talderik atera. Beraz, atea zabalik dugu taldera batu gura duten denentzat.

Zer hartueman duzue talde bien artean? Batak bestearen ibilbideari jarraitzen diozue?

I.D.: Denok eduki behar dugu denon ardura, eta horrela funtzionatzen dugu. Esaterako, lehen taldeko jokalaria bat gazte mailako taldearen entrenatzailea da. Gaizka [Gallastegi] ere gugaz aritutakoa da. Azkenean, beti aurkitu daiteke lotura bat. Delegatua ez denak beste arduratzaile bat du, eta, modu horretara, lankidetzan eta denon konpromisoagaz eusten diogu Elorrioko Buskantzari.

“**M.B.:** “Ez genuen espero hain ondo hasterik; itzelezko motibazioa eman digu horrek”

“**I.D.:** “Iaz kostatu egin zitzaigun martxa hartzea; aurten erregularragoak izan gura dugu”

Minbiziaren kontrako borrokan lagunduko du Tabirakok bere izaera soziala indartuta

Asteburuko partiduan, bularreko minbizaren kontrako egunari keinu bat eginez hasiko dute bide hori



Tabirako Baquéko talde nagusiak kamiseta arrosa jantzita. Tabirako

> SASKIBALOIA Joseba Derteano Tabirako saskibaloia klubak bere izaera soziala indartu du. Saskibaloia bidez, balio jakin batzuk zabaltzeaz gainera, herriari eta herritarrei beste era bateko ekarpena egiteko modua da. Minbiziaren kontrako borrokan lagunduz hasiko dute bide hori.

Urriaren 19an bularreko minbiziaren kontrako nazioarteko eguna da, eta horixe izango da klubaren lehen jomuga. Klubean emakumeek duten pisuagatik —eskola kiroleko 40 tadetik 30 neskenak dira, esaterako— hartu dute erabaki hori.

Minbizi mota horri begirako kamiseta arrosak egin dituzte, eta gizonen zein emakumeen talde nagusi biek zapatuko partiduen —18:00etan eta 20:00etan— aurretik jantziko dituzte Landako kiroldegian. Baina, “ez dugu irudi solidario horretara bakarrik mugatu gura”, dio Ina Mendibe presidenteak, eta diru ekarpenak edo diru bilketak egiteko asmoa ere badute. Horiek denak minbiziaren kontrako elkarrengatzen berba egin eta adostu ostean abiatuko dituzte, baina, modu batera edo bestera, abenduaren 24an eta 31n atera ohi dituzten otzaren ekimena baliatu-

ko dute arlo horretan laguntzen hasteko.

Talde nagusien aurkezpena

Talde nagusiek aurtengo familia argazkia atera dute asteon. Tabirako Baquéko talde nagusiek Euskadiko Lehen Mailako igoera faseak jokatu zituzten iaz. Emakumeek lorpena errepikatzen saiatzeko osagai guztiak dituzte aurtengo. Gizonetan, aldiz, duda gehiago dago. Jokalari garrantzitsuek taldea utzi dute, eta helburuak jartzeko oraindik goizegi dela uste du Tomas de Castro entrenatzaileak. Iaz taldean pisu handia zuten

lau jokalaririk falta zaizkie aurtengo: David Tudela, Imanol Orue-mazaga, Mikel Larrañaga eta Urko Zamakona. Joan direnen hutsunea “ordezkaezina” dela eta taldea “hankamotz” geratu dela onartzen du. Testuinguru horretan, “argi eduki behar dugu nola gauden eta nortzuk garen, eta orain ezin dugu helburu zehatzik jarri; partiduz partidu joan behar dugu”. Bide horretan laguntzeko, junior taldetik Lorentxo Uriarte juniorra eta bigarren taldetik Txaber Gorrotxategi batu dituzte. Imanol Martinez ere bueltan da, iaz Galdakaon aritu ostean.

Emakumeak ohiko martxan

Tabirako Baquéko emakumeek asteburu honetan hasiko dute denboraldia. Hainbat urte onen artean borrokan dabilen taldeak maila horri eutsi gura dio aurtengo. Ikasketengatik Ainhoa Baquék —abendura arte— eta Gorane Urainek utzitako hutsuneak betetzeko, Aitziber Ardanzak eta Olatz Garitak junior taldetik nagusietarako saltoa eman dute.

Oro har, iazko taldea mantendu dute. Horrela, “azken urteetako dinamikari eusten badiogu, goian ibili behar genuke”, uste du Jesus de Vicente entrenatzaileak.

ADITUAREN TXOKOA

GOTZON GOMEZ

Errugbi entrenatzailea



Harrobia lantzeko arrazoiak

Badira urte batzuk DRTn errugbi eskola sortzeko beharra antzeman zela. Hastapen gogorraren ondoren, belau-naldi oparoa izan zuen klubak, eta gazteenekin lantzeko premia aurreikusi zen, klubak sendotzeko bidean.

Sasoiak aldatuz joan dira, azken 20 urteetan umeen kopurua nabarmenki jaitsi da, horrekin batera kirol berriak beraien esparrua hartzen joan dira, eta batzuetan zaila izan da 15-20 gazte biltzea errugbian aritu daitezen. Horren ondorioz, Durangok eta Elorriok, nire ustetan erabaki zuzena hartuz, beraien indarrak batzea erabaki zuten.

Azken lau bost urteetan, berriz ere, errugbi eskoletan gorakada nabaria izan dugu. Familia ugari hurbiltzen zaizkigu beraien umeekin. Beraien ahotan hainbat balio daude, eta nik batzuk azpimarratuko ditut.

Errespetua: jokalariei, txiki txikitatik errespetua zaindu behar dutela esaten diegu. Esan eta izan, hau da, nagusiok eredu izan behar dugu. Errespetua kide, entrenatzaile, aurkari eta epaileekin.

Hezikidetzak: kontaktua askotan dagoen arren, neska-mutilek elkarrekin jokatzeko dute, denak dira jokalariek.

Ondo pasatzea: heziketa eta hazkunde prozesuan daude, eta garrantzitsua ez da irabaztea.

Harrotasuna: ez dut harrokeria esan nahi. Harro gaude klub baten kide garela, herri bat edo eskualde bat ordezkatzeko dugulako.

Ziur nago harrobia lantzen duten klubek etorkizun oparoa dutela, duda barik, eta uste dut horregatik ditugula hainbeste ume errugbi eskolan.

Castroviejok brontzea jantzi du munduko txapelketan

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Qatarreko Doha herrian jokatutako munduko txapelketako erlojupeko proban hirugarren tokian amaitu zuen Jonathan Castroviejo eguaztenean.

Munduko txapelketan irabazten duen lehenengo domina da. Tony Martin alemaniarra eta Vasil Kiryienka bielorrusiarra, hurrenez hurren, sailkatu ziren aurreneko bi tokietan.

Denboraldi gogorari amaiera bikaina jartzen ari da Movistar taldeko txirrindularia. Lesio larri bat igaro ostean, Europako erlojupeko txapelketa irabazi zuen lehenengo, eta orain brontzekoa kolokatu du Qatarren.



Jonathan Castroviejo erlojupeko munduko txapelketa lehiatzen.



HEKi
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com

f Heki Herri Kirol Kluba

Umeentzako
erakustaldiak eta antolaketak

Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Gatikako Irakurle-Batza

Gizakiok izan ditzakegun egitasmoak garatu eta burutzeko biderik zuzen eta egokiena giza-aldra edota gizataldeak eratuz izan ohi da, horretara, batasunaren bitartez helburuak era hobean garatu eta lortzeko aukera izaten baita.

Baina, gure gizarte zorabiatu honek talde lanari uko egiten dionaren susmoa antzeman daitekeelakoan nago eta horrelakorik nabarmen ikus daiteke gizarte-arlo askotan indibidualismoa, materialismoa, gizarte-bakardadea, zatiketa, despertsonalizazioa eta lehia-kortasuna nagusitu baitira, pertsonen arteko harremanak optimizatzea ahalbidetzen duten giza-harremanak bigarren maila batera baztertu edota hainbat kasutan erabat desagerraraziz.

Horren guztiaren ondorio zuzena egun diren depresio kasuen gorakada, larritasuna, estresa, lan-mehatxua, etab. dira. Taldean lan egitea edota helburu bat lortzeko taldeak eratzeak onura asko ditu.

Pertsonen garapenerako gizarte-harremanak funtsezkoak dira, baina horrezaz gain, gizakiok gure gizarte-izaeragatik elkarren arteko harremanaren beharrezana daukagu, horretara taldean ikasi edota egindakoak baliagarritasun handiagoa eta aberastasun gehiago emateaz gain ahalagin desberdinak batuz helburuak ere modu eraginkorragoan lortzen baitira.

Taldeak, elkarrekin jardunaz helburu jakin bat bakarrean baino askoz hobeto lortuko dutenaren uste osoaz arituz, euren ahalagina taldekide guztien helburu dena lortzera zuzentzea erabaki duten elkarrekiko nola-baiteko menpekotasuna izanik euren arteko harremanak dituzten norbanakoek eratutako batzak dira.

Eta hori da Amaia Arruza, Gatitako Liburutegiko ardura-dunak, iazko urtean abiarazitako ekimen txalogarria: Gatikako Irakurle-Batza asmatu, eratu eta abiatu. Egungo gure gizartean, irudia eta ikus-entzunezkoek nabarmen nagusitu direnean, informazioaren hein handi bat irudiaren eremuan kokatzen denean, irakurketak gero eta esparru murriztagoa duenean, baina, bestalde, ezinbestean informazioa barnertzeko irakurri beharra besterik izango dela jakinik, Gatikakoa bezalako ekintzak abiarazten direna ikusteak, irakurketari dagokion duintasuna eta garrantzia emanez irakurketarako esparruak sortzen direna

ikustea, albiste atsegingarria izateaz gainera beste batzuen-tzako eredugarri ere bada.

Gatikako Irakurle-Batza helburu garrantzitsuak lortzeko asmoz sortu da. Funtsezkoena, ez bakarra, hilerio behin izaten den batzarrean, aldezturik talde-erabakiz hautatutako liburua irakurri eta bere inguruko iradokizun, laburpen eta bakoitzaren aburuak adieraztera emateko ekimena gauzatzea da.

Jarduera horren helburu nagusia Gatikako Udalerriko biztanleen artean irakurketa aktiboa sustatzeko ekintza baliagarria eskaini eta garatzea datza. Aipatu irakurle-batzak bere lehen urtean zehar lortutako onura eta ekarpenak asko izan dira, baina lortzear direnak oraindik askoz gehiago dira.

Azpmarratzekoa da, bestalde, irakurle-batzatik bideratutako ekintza garrantzitsu horrek gaur arte bere ingurura ekarri dituen adin guztietako gizon eta emakume irakurleen konpromiso eta erantzun bikaina. Atsegingarria da oso, hilerio, behin liburua etxean irakurri eta sakon aztertutako ondoren, guztien arteko elkarlanari esker eta irakurle-batzarekiko konpromisoa hilerio berretsiz, irakurle-batzak gero eta sustrai sendo eta sakonagoak dituela ikustea.

Irakurketak onura asko, etekin ugari, emendio anitza eta irabazkin naro dakarzkio irakurleari. Irakurketak pertsona bakoitzaren idatzizko eta ahozko adierazpen-trebetasunak zeharo hobetzen ditu, pentsamenduak era gardenagoan eta zehaztasun maila bikainagoz jakinarazteko gaitasuna ematen baititu.

Irakurketaren bitartez bakoitzaren hizkuntza jariakortasun nabarmenagoz azaltzeko gaitasuna hobetzen dugu eta egun bizi garen gizarte honetan jakintzak baino askoz garrantzitsuagoak dira bakoitzak trebetasun intelektualetan dituen gaitasun edota abileziak. Irakurketa horrelakorik garatu ahal izateko berebiziko jarduerak intelektuala da.

Irakurketak buru-bizitasuna eta memoria hobetu eta gehitu egiten ditu, pentsamenduaren prozesua bera ere suspertuz eta ulermena bizkortu eta areagotuz.

Irakurketak norbere hiztegia handituz, aberastasun lexiko ikaragarria ematen du eta, bestalde, idazkera egokia izateko ortografia ezartzen laguntzen du, irakurketa baita gure idazkera eta ahoskera erabat hobetu eta garatzeko biderik egokiena.

Idazkerak gure barne pentsa-

menduak, ezkutuko oldozmenak eta, berezitasunez, gure sakoneko adierazpenak azaleratzen lagungarri izan ditzakegun errailetako gogoeten besterenganatze egokia izateko tresnak ematen dizkigu, horrela besterik ezin baitira gure barnealdean izan ditzakegun gogamenak iragarri.

Beraz, irakurriaren irakurritz, gure hizkuntza-gaitasuna aberastu eta hobetu ez dezagun bitartean, ortografia zuzen eta egoki idazten ikasi ez dezagun heinean, pertsona bakoitzaren jakintza-eremu eta aukerak urritze bidean besterik ez dira izango, bakoitzaren mundu intelektuala gero eta mugatu eta murriztagoa izanez.

Koldo Mitxelena EGAN aldizkarian, gogoangarri izan behar dugun ondorengo adierazpena idatzi zuen: *“Gauza bat da aho-hizkuntza eta bestea, arras bestea, hizkuntza idatzia, ez hau edo hori, baizik edozein hizkuntza idatzi, gehiagoko edo gutxiagoko neurrian. Frantsesez, ikasi berria dut, esan dezakezu, ahoz esan, **tandis que s-rekin edo s-rik gabe, peut-être t-rekin edo t-gabe. Baina zorigaitzokoa s-rik gabe bata eta t-rik gabe bestea idazten dituen haurra eta pertsona hazia !”***

Irakurketak pentsatzeko era berri bat emateaz gain, beste ikuspegi zeharo desberdin eta ideia guztiz berriak baitaratu ahal izateko burua zabaltzen du.

Irakurketak eskaintzen digun ekarpen garrantzitsuetariko bat, garrantzitsuena ez bada, norberak duen egoera eta arazoak beste batzuk ere aldezturik izan zituztenaz erabat oihartu eta jabetzeko ematen digun aukeran datza.

Irakurketak beste errealitate batzuetara hurbiltzeko, bakoitzak dituenarekiko zeharo desberdinak izaten ez direnak, aukera ematen du, esperientziak, gorabeherak eta irtenbideak askori baliagarri izan dakizkien, partekatuz.

Irakurketaren bitartez gure ingurua eta mundua bera ikus-

teko dugun gaitasuna hobetu egiten da, gure inguruan gertatzen direnekiko arreta eta kontzentrazioa ere garatu eta onduz.

Irakurketaren bitartez gure kultura-jakintza zeharo ugartitzen da, iraganean izandako gizarte, egoera edota une historikoetara egin ezin ditzakegun bidaia eginez, garai horietako gizarteen arazoak ulertzeko aukera paregabea emarik.

Irakurketak informazio ugari eta ezagutza asko ematen digu eta, ondorioz, gure jakintza eta gaitasun intelektualak etengabe hobetzeko funtsezko elikagaia dugu.

Baina horretarako ohitura behar da eta etengabe irakurtzeko ohiturarik ez baldin badaukagu, ez irakurlearen mundua gero eta mugatu eta urriago bilakatuko da.

Irakurtzeko ohiturarik ez izatea, barne aberastasuna, jakintza maila bera, gainerako ideia eta ikuspegi berrienganako burua zabalik ez izateko ohitura eta, oro har, irakurketarako ohiturarik ezak eraginda pentsatzeko gizakiok dugun gaitasuna mugatuz joanez, gure izana eta ahalmenak ihartzeko biderik zuzenena da.

Irakurketarako ohiturarik izaten ez denean, ez dago inolako eraginkortasun mailarik eta, ondorioz, ez da irakurketarik ezak dakarren emaitza baino besterik azaltzen: urritasun intelektuala.

Hainbatetan, irakurketak dakartzan onurei eta ikasleen hezkuntzan irakurketaren garrantzi gorenari buruzko aipamenak etengabe entzuten ditugu berezitasunez heldu diren ahotik. Baina, zoritxarrez, helduak eurak, sarritan, esanaren eta eginaren arteko kontradikzio garbian erortzen dira, ez baitaukate, oro har, irakurketarako ohitura errota eta sustraiturik eta, ondorioz, egunero irakurketari eskainitako denbora oso urria edota hutsaren hurrengo izanik, telebista lehenesten dute eta ez dira, gainera, adinez txikiak diren euren semeekin irakurketa-jarduerak eta irakurritakoaren inguruko interpretazioa egiteko praktiketan aritzen. Horrela ez

dago irakurzaletasuna suspertu eta elikatzerik. Ereinaldirik ezean, ernamuinik ez.

Gatikako Irakurle-Batza sortu izanak garrantzi handia dauka, irakurketari zor zaion itzala eman eta irakurzaletasuna suspertzeko ekimen bikaina baita. Eredugarri eta jarraibide.

Aurrera begira, Gatikako irakurle-Batzak garatzekoak dituen ekintza eta jarduerak askotarikoak (idazleen solasaldiak, literatura-hitzaldiak, irakurritako liburuen filmak ikusgai izan, liburuarekin zerikusia duten ekintzak garatu, liburu elektronikoetan prestakuntza eman, ulermen jasoko irakurketa azkarra metodologiaren inguruko tailerrak, etab.) izango dira eta, atarian esan lez, egun elkartekide diren guztien ahalagina eta kemena bidelagun izango dira zeregin horietan, egokitasunez garatu daitezkeen asmatan. Ekintza bikaina, txalogarria, Amaia Arruza Gatikako Liburutegiko ardura-dunak asmatu eta abiarazitakoa, beste toki batzuetarako eredugarri dela.

Zorionak, bestalde, etxeko epeltasunean, lasaitasunaren besoetan aldezturik Irakurle-Batzan hautatutako liburua zintzo-zintzo eskuan hartu eta irakurri ondoren, Gatikako liburutegian hilerio egiten den saiora hurbildu eta bertan parte hartzearen.

Euren parte hatzerik gabe ez litzatekean egitasmoa garatzetik izango. Lan isila baina garrantzitsua elkartean partaide direnak egindakoa, irakurketa euren bizitzaren ardatzetariko bat izanik, beste lankide guztioekin partekatzea aberasgarri eta garrantzitsua baita.

Egia esan, irakurketari ematen diogun garrantzia, maila eta lehentasuna, gure irakur-jardueraren intentsitatearekin, irakurketak gure bizitzan duen lehentasun mailarekin eta eremu intelektualean irakurketari ematen diogun hierarkiarekin zerikusi zuzena dauka.

Gatikan irakurketa sustatze asmatan abiarazitako ekimena errealitate bihurtu duzuen guztioi, ZORIONAK.

Gorka Aurre

prakagorri@prakagorri.eus

**“Irakurriz
hazten laguntzeak,
pentsatuz bizitzeko
gaitasuna ematen du”**

Gorka Aurre



Prakagorri
reading skills

Tel.: 944 915 763
prakagorri@prakagorri.es

“Sekula ez naiz proba batean erretiratu, eta Hawaiikoa ez zen salbuespena izango”

Gorputzak ezetz zioenean, burua baiezkora setatu zuen Gurutze Fradesek Konako Ironmana amaitzeko



Gurutze Frades Hawaiin —Kona herrian— jokaturako munduko Ironman txapelketan.

> IRONMANA Joseba Derteano
Gurutze Fradesek (1981, lurreta) bere ibilbidean inoiz ez bezala sufritu zuen Hawaiin jokaturako munduko Ironman txapelketan. Gorputzak ez zion gura zuen moduan erantzun, eta 33. tokiak (10.18.46) ez du islatzen bere benetako gaitasuna. Puntu gutxi batu zituen, eta datorren urteko parte-hartzea konprometitu du horrek. Jarrera positiboari eusten dio, eta bere ibilbideko sasoirik onenean dagoela uste du, baina horrelako erronka bat gauzatzeak eskatzen duen makinaria guztia (babesleak, logistika...) berriro martxan jartzea konplikatu eta nekagarria dela dio Mugarra TTko kirolariak.

Kontaiguzu zelakoa izan zen zure lasterketa. Igeriketa saioan zelan zeunden?
Uretatik 35. tokian irten nintzen, espero nuen baino aurrerago. Bizikletako ibilbideko erdia osatu arte, lasterketa oso ondo zihoan. Egon gura genuen lekuan geunden.

Orduan hasi zen zure odisea.
Bai. Ahultzen hasi nintzen, eta goragalea etorri zitzaidan. Kirol honetan ondo hidratatu beharra dago, eta, beharbada, bidoian naraman Coca-cola bizikletan asko mugituko zen, eta apar gehiegi edan nuen. Hasieran, edan eta edan ibili nintzen, eta bizikletan beti posizio batuan goazenez, hainbaten, edaria ez zitzaidan ondo barneratuko. Posizioa sarritan aldatzen eta elikagai solidoak jaten saiatu nintzen, baina goragalea ez zen joaten.

Lasterketari eutsi ahal izan zenion?
Erritmoa jaitsi nuen, eta lasterketa joan egin zitzaidan apur bat, baina ez gehiegi ere. Bizikletatik jaitsi, eta korrika hastean gorputza hobetu egingo zitzaidala uste nuen. Bai-

na, ez, okerrera joan zen, eta hasierako 12 kilometroak kalbario hutsa izan ziren. Tripa puztuta eta minduta nuen. Sabelak ez zuen jandakoa eta edandakoa barneratzen, eta dena hantxe geratu zen. Ondorioz, gorputza kolapsatu egin zitzaidan. Ez zen tripa bakarrik, gorputz osoak ez zuen ondo erantzuten. Balantzaka nenbilen. Hasieran pattalaldi bat baino ez zela pentsatu nuen, baina ez, gorputza erabat kolapsatu zitzaidan.

Ironmana bertan behera uztea pasatu zitzaizun burutik?

Bai. Ia zutunik ere ezin nintzen mantendu, eta dena bertan behera uztea pasatu zitzaidan burutik, baina sekula ez naiz proba batean erretiratu, eta Hawaiikoa, nire erronka nagusia, ez zen salbuespena izango.

Kalbarioak lasterketa amaitu arte iraun zuen?

12 edo 15. kilometroan Rober [Corujo] nire entrenatzaile eta bikoteagaz, eta gugaz zegoen triatleta bategaz bat egin nuen. Zer gertatzen zitzaidan azaldu nien, eta ondo ulertu zuten. Kolapsoa ekiditeko, nahita botaka egitea erabaki genuen. Askok bota nuen, dena likidoa. Gorputza askatu egin zitzaidan. Nire ohiko denboretan ez, baina, gutxienez, korrika egin nezakeen.

Hortik amaierara, arazorik barik heldu zinen?

Ba, ez. 30 kilometro falta zitzaizkidan, eta berriro edaten eta jaten hasi, eta ostera ere txar to jarri nintzen. Jatea eta edatea akatsa izan zen. Azkenean, ahoa busti baino ez nuen egiten, ezer edan barik. 38. kilometrotik aurrera [42.2 km dira korrika], gorputzak hobera egin zidan eta, nola diren kontuak, indartsu

amaitu ahal izan nuen. Baina, zoriotzarrez, ordurako berandu zen, lasterketak aspaldi egin baitzidan ihes.

Zure ibilbidean, sufritu duzu inoiz hainbeste?

